

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

12/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 13koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua arautzeari 2025erako

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 37. artikuluan ezarri da erregimen erraztua aplikatuko zaiela erregimen hori arautzen duen foru dekretuan jasotako jardueretako bakoitzari, eta araudi horren 42. artikulua foru aldundiari eskumena ematen dio indizeak, moduluak eta gainerako parametroak onesteko, erregimen horren ondorioetarako.

Foru dekretu honek funtsean bere horretan utzi ditu, 2025erako, aurre-aurreko urteko balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztuan aplikagarri diren moduluak, bai eta modulu horiek aplikatzeko jarraibideak ere.

Foru dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia- eta eraginkortasun-printzipioei dagokienez, arau hau beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoko legeria egokitzeko lurralde erkidean indarrean dauden arau substantibo eta formaletara, 2025erako aplikatzekoa den balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren erregulazioari dagokionez. Proportzionaltasun printzipioarekin bat etorritik, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauak biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Seguritasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzailerak izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 1. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartutako balio erantsiaren gaineko zergaren araudiko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztua jarraian adierazitako diren jardueri edo jardura sektoreei aplikatuko zaie:

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	EKONOMIA JARDUERA
0 dibisioa	Abeltzaintza independentea.
—	Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.
—	Nekazariak edo abeltzainek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduerak osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak.
—	Basogintzako jardueren titularrek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduerak osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak.
—	Apartzeria erregimenean gauzatzen diren nekazaritza jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
—	Apartzeria erregimenean gauzatzen diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
—	Produktu naturalak eta landare eta animalia produktuak eraldatu, landu eta manufakturatze prozesuak, jarduerak ekonomikoaren gaineko zergaren tasetan industria jarduerari dagokien epigrafea behar dutenak eta produktu naturalak zuzenean lortzen diren ustiatzearen titularrek egiten dituztenak.
419.1	Okintza eta opilgintza.
419.2	Opilgintza, pastelgintza eta gailtagintza.
419.3	Oreki frijituen industriak.
423.9	Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.
642.1, 2 eta 3	Haragi txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak.
642.5	Oilaskoak erretzeagatik 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
644.1	Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, konfiteak eta antzekoak, esnea eta esnekiak barne.
644.2	Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak.
644.3	Txikizkako merkataritza: gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinak
644.6	Txikizkako merkataritza: oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janaurrekoak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarriak.
647.1	Loteriak merkaturatzeagatik 647.1 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
647,2 eta 3	Loteriak merkaturatzeagatik 647.2 eta 3 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
652,2 eta 3	Loteriak merkaturatzeagatik 652.2 eta 3 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
653.2	Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratresnak, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuak eta sukaldeko altzariak.
653.4 eta 5	Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materialak, saneamenduko gaiak eta altzariak, ateak, leihoak, pertsianak eta abar
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarri eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Ibilgailu mota guztietarako gurrupilazal, banda edo bandaje eta aire ganberen txikizkako merkataritza; gai horien handizkako merkataritzako jarduerak izan ezik.
659.3	659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataria, negatiboak eta inpresionatutako argazkigintza materiala biltzeagatik ondoren inoren laborategietan prozesatzeko, eta kopiak eta argazki handituak emateagatik.
659.4	Kanpoko publizitate zerbitzuagatik eta garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak eta loteriak merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
662.2	Loteriak merkaturatzeagatik 662.2 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
663.1	Oreki frijituen (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituen, janaurrekoen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorrek kanpoko txikizkako merkataritza, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogintzako produktu propioak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bakarrekako jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673.1	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.
673.2	Beste kafetegi eta taberna batzuk.
675	Kiosko, etxola, txosna edo antzeko beste lokal batzuetan ematen diren zerbitzuak.
676	Txokolategi, izozkitegi eta hortxategietan ematen diren zerbitzuak.
681	Izar bakarrekako edo biko hotel eta moteletan ematen den ostatu zerbitzua.
682	Ostatuetan ematen den ostatu zerbitzua.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	EKONOMIA JARDUERA
683	Apopilo-etxeetan ematen den ostatu zerbitzua.
691.1	Etzerako tresna elektrikoaren konponketa.
691.2	Auto, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.
691.9	Oinetakoaren konponketa.
691.9	Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG). (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, antzinako gauzen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik).
692	Industria makinen konponketa.
699	Bestelako BISG konponketa batzuk.
721.1 eta 3	Hiriko talde garraioa eta errepide bidezko bidaiarien garraioa.
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.
722	Salgaien errepide bidezko garraioa.
751.5	Ibilgailuak koipeztatzea eta garbitzea.
757	Etxe-aldaketa zerbitzua.
849.5	Mezuen eta mandatuen garraioa, baldin eta jardueraren norberaren garraio bideen bitartez soilik gauzatzen bada.
933.1	Lur gaineko eta ur gaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea
933.9	Irakaskuntzako beste jarduerak batzuk, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza (BISG).
967.2	Kirol hobekuntzarako eskola eta zerbitzuak.
971.1	Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikusketa eta lisaketa.
972.1	Gizonezko eta emakumezkoentzako ile apainketako zerbitzuak.
972.2	Apaindegiak eta edertasun institutuak.
973.3	Fotokopiagailuen bidez agiriaren kopiak egiteko zerbitzuak.

2. Jarduera bakoitzaren eragiketa ekonomikoak zehazteko, jardueraren ekonomikoaren gaineko zergari buruzko arautegiaren arabera jokatu beharko da.

Halaber, jardueraren bakoitzaren barrukotzat hartuko dira foru dekretu honetako I. eta II. eranskinetan berariaz sartutako eragiketa ekonomikoak, baldin eta jardueraren nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Foru dekretu honen II. eranskinean jasotako jarduerari dagokienez, jardueraren nagusiaren osagarritzat joko dira jardueraren diru-sarrera bolumenaren ehuneko 40 gainditzen ez duen diru-sarrera bolumena duten jarduerak. I. eranskinean jasotako jarduerari dagokienez, foru dekretu honen bigarren zenbakian adierazten den kontzeptua hartuko da kontuan.

Bigarrena. Foru dekretu honen lehenengo zenbakian xedatutakoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi eta erraztua ez zaie aplikatuko honako magnitude hauek gainditzen dituzten jarduerari edo jardueraren sektoreei:

a) Diru sarreraren bolumenaren arabera magnitudea ekonomia jardueraren guztietarako, salbu nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak eta basogintzakoak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122. artikulua Bi apartatuaren 2. zenbakiaren lehenengo gidoian 2025eko zergaldirako aurreikusitakoa.

Horri begira, eragiketa guztiak konputatuko dira, fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduan (18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa) ezarritakoaren arabera faktura egiteko betebeharra izan edo ez.

Aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jardueraren horretako diru sarreraren bolumena urte osokotzat hartuko da.

b) Diru sarreren bolumenaren arabeko magnitudea ekonomia jarduera guztietarako, salbu nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak eta basogintzakoak:

Diru sarreren bolumena 250.000,00 euro urteko jarduera hauetan:

«Abeltzaintza independentea».

«Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak».

«Nekazariak edo abeltzainek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak».

«Basogintzako jardueren titularrek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak».

«Apartzeria erregimenean gauzatzen diren nekazaritza jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak».

«Apartzeria erregimenean gauzatzen diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak».

«Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan egon daitezkeen nekazaritza edo abeltzaintzako jarduerak».

«Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan egon daitezkeen basogintzako jarduerak».

«Produktu naturalak eta landare eta animalia produktuak eraldatu, landu eta manufaktura-tzeko prozesuak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tasetan industria jardueri dagokien epigrafea behar dutenak eta produktu naturalak zuzenean lortzen diren ustiategiaren titularrek egiten dituztenak».

Horretarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 40. artikuluko 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan eta 47. artikuluen 1. apartatuan aurreikusitako liburu erregistroetan idatzi behar diren eragiketak baizik ez dira konputatuko.

Letra honen aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, foru dekretu honen 1. artikuluan jasota dauden bi jarduerari balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztua aplikatuko zaie soilik baldin eta jarduera horiei egotz dakiekeen guztizko diru sarrera bolumena nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jarduera nagusiei dagokiena baino txikiagoa bada. Honako hauek dira bi jarduera horiek: «Nekazariak edo abeltzainek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak» eta «Basogintzako jardueren titularrek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak edo salbuetsita daudenak».

Aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako diru sarreren bolumena urte osokotzat hartuko da.

Aurreko a) eta b) letretan xedatutakoaren ondoretarako, sarreren kopuruak adierazitako jarduera horien multzoan lortutako sarrera guztiak barne hartuko ditu, eta kanpoan utziko dira dirulaguntza arruntak edo kapitalekoak, kalte-ordainak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziaren konpentsazioa, eta balio erantsiaren gaineko zerga eta, halakorik badago, eragiketa kargatzen duen baliokidetasun errenergia ere, balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi erraztua duten jardueretan.

c) Erositako ondasun eta zerbitzuen bolumenaren arabera magnitudea:

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122. artikulua Bi apartatuaren 3. zenbakian 2025eko zergaldirako aurreikusitakoa garatutako ekonomia jarduera guztietarako. Azpikontrataturiko obrak eta zerbitzuak gehieneko kopuru horretan sartu behar dira, eta ibilgutuaren erosketak ez dira sartu behar.

Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, erosketen kopurua urte osorako hartuko da.

d) Magnitude zehatzak:

EKONOMIA JARDUERA	TAMAINA
Okintza eta opilgintza.	6 langile
Opilgintza, pastelgintza eta gailtagintza.	6 langile
Oreki frijituaren industriak.	6 langile
Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.	6 langile
Txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragigaiak eta haragiki gertatuak.	5 langile
Oilaskoak erretzeagatik 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek.	4 langile
Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, konfiteak eta antzekoak, eta esnea eta esnekiak barne.	6 langile
Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak.	6 langile
Txikizkako merkataritza: gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinak.	6 langile
Txikizkako merkataritza: oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janurrekoak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarriak.	6 langile
Loteriak merkaturatzeagatik 647.1 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek.	5 langile
Loteriak merkaturatzeagatik 647.2 eta 3 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek.	4 langile
Loteriak merkaturatzeagatik 652.2 eta 3 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek.	4 langile
Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratesnak, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuak eta sukaldeko altzariak.	3 langile
Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materialak, saneamenduko gaiak eta altzariak, atek, leihoak, pertsianak eta abar.	3 langile
Lurreko ibilgailuentzako osagarri eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.	4 langile
Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).	3 langile
Txikizkako merkataritza: ibilgailu mota guztietarako gurpilazalak, bandak edo bandajeak eta aire ganberak.	4 langile
659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkatariek, negatiboak eta inpresionatutako argazkigintza materiala biltzeagatik ondoren inoren laborategietan prozesatzeko, eta kopiak eta argazki handituak emateagatik.	3 langile
Garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak eta loteriak merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek, bide publikoan dauden kioskoetan ezarritakoak izan ezik.	3 langile
Garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak eta loteriak merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek, bide publikoan dauden kioskoetan ezarritakoak izan ezik.	2 langile
Loteriak merkaturatzeagatik 662.2 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariek.	3 langile
Oreki frijituaren (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituaren, janurrekoen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien merkataritza soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogintzako produktu propioak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.	2 langile
Bi sardexkako jatetxeak.	10 langile
Sardexka bakarreko jatetxeak.	10 langile
Kafetegiak.	8 langile
Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.	8 langile
Beste kafetegi eta taberna batzuk.	8 langile
Kiosko, etxola, txosna edo antzeko beste lokal batzuetan ematen diren zerbitzuak.	3 langile
Txokolategi, izozkitegi eta hortxategietan ematen diren zerbitzuak.	3 langile
Izar bakarreko edo biko hotel eta moteletan ematen den ostatu zerbitzua.	10 langile
Ostatuetan ematen den ostatu zerbitzua.	8 langile
Apopilo-etxeetan ematen den ostatu zerbitzua.	8 langile
Etzerako tresna elektrikoaren konponketa.	3 langile
Auto, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.	5 langile
Oinetakoaren konponketa.	2 langile

EKONOMIA JARDUERA	TAMAINA
Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG). (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, antzinako gauzen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik).	2 langile
Industria makinaren konponketa.	2 langile
Bestelako BISG konponketa batzuk.	2 langile
Hiriko talde garraioa eta errepide bidezko bidaiarien garraioa.	5 ibilgailu urteko edozein egunetan.
Autotaxi bidezko garraioa.	3 ibilgailu urteko edozein egunetan.
Salgaien errepide bidezko garraioa.	4 ibilgailu urteko edozein egunetan.
Ibilgailuak koipeztatzea eta garbitzea.	5 langile
Etxe-aldaketa zerbitzua.	4 ibilgailu urteko edozein egunetan.
Mezuen eta mandatuen garraioa, baldin eta jarduera norberaren garraiobideen bitartez soilik gauzatzen bada.	5 ibilgailu urteko edozein egunetan.
Lur gaineko eta ur gaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea.	4 langile
Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza (BISG).	5 langile
Kirol hobekuntzarako eskola eta zerbitzuak.	3 langile
Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa.	4 langile
Gizonezko eta emakumezkoentzako ile apainketako zerbitzuak.	6 langile
Apaindegiak eta edertasun institutuak.	6 langile
Fotokopiagailuen bidez agiriaren kopiak egiteko zerbitzuak.	4 langile

Erregimen erraztuan sartu ala ez erabakitzeak magnitudea kalkulatzeko, kontuan hartzen dira jarduera nagusia gauzatzeko erabiltzen diren langileak eta ibilgailuak, bai eta erregimenean sartuta dauden jarduera osagarriak gauzatzeko erabiltzen direnak, bat etorritik foru dekretu honen lehenengo zenbakiko bigarren apartatuarekin.

Enplegaturiko langileen kopurua aurre-aurreko urtean jardueran aritutako epealdiari dagokion batez besteko haztatuaren bitartez zehaztuko da.

Enplegaturiko langileetan, soldatapekoak nahiz soldata gabekoak zenbatu behar dira. Batez besteko haztatua zehazteko hurrengo erregelok erabiliko dira soil-soilik:

– Aurre-aurreko urtean jarduera gauzatu den aldirian lan egindako orduak baino ez dira hartuko kontuan.

– Jardueran lan egiten duen eta soldatapekoa ez den pertsona gisa hartuko da kontuan urtean, gutxienez, 1.800 lanordu egiten dituen. Urtean egindako lanorduak 1.800 baino gutxiago badira, urtean benetan egindako lanordu kopuruaren eta 1.800 lanorduen arteko proportzioa hartuko da soldatapeko ez diren langileen zenbatekotzat.

– Enpresaburua soldatapeko ez den langile gisa hartuko da kontuan. Egiaztatutako arrazoi objektiboak, hala nola, erretiroa, ezintasuna, jardueren aniztasuna edo ustiategiaren aldi baterako itxiera direla eta, urtean lanorduen kopurua 1.800 ordu baino gutxiagokoa bada, jardueran benetan egindako denbora zenbatuko da. Hala gertatzen denean, jarduerako zuzendaritza, antolaketa eta plangintza lanetan egindako denbora eta, oro har, jardueraren titulartasunari datzekion zereginetan egindakoa neurtzeko, enpresaburua urtean 0,25 pertsona gisa kontuan hartuko da, benetako dedikazioa handiagoa edo txikiagoa dela frogatu ezean.

– Soldatapeko langile gisa hartuko da urtean lan hitzarmenean adierazitako ordu kopurua egiten dituen edo, hitzarmenik ezean, 1.800 h/urte egiten dituen. Urtean egindako lanorduak gutxiago edo gehiago badira, hau hartuko da soldatapeko langileen zenbatekotzat: benetan egindako lanordu kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan ezarritako lanordu kopuruaren edo, hitzarmenik ezean, 1.800 lanorduen arteko proportzioa. Jardueran aritzen den lehen urtean, jarduera hastean enplegaturiko pertsonak edo ibilgailuak hartuko dira kontuan.

Egutegiko urte batean letra honetako neurriak gainditzen badira, subjektu pasiboa bazterturik geldituko da hurrengo urteaz gero Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztutik edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimenetik, baldin eta jarduera horiengatik erregimen horiek aplikatzekoak badira.

Hirugarrena. Balio erantsiaren gaineko zergaren araudiaren 38. eta 42. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi eta erraztuaren modulu eta indizeak onartu dira, hain zuzen ere, lehenengo zenbakiko jardueri aplikatu behar zaizkienak 2025. urtean. Horiek guztiak eta aplikatzeko jarraibideak foru dekretu honen I., II. eta III. eranskinetan bildu dira.

Laugarrena. Balio erantsiaren gaineko zergako subjektu pasiboek, baldin erregimen erraztua aplikagarri zaien jarduerak egiten badituzte eta hari uko egin nahi badiote edo ukoa ezeztatu 2025ean, 2025eko apirilaren 5era arteko epea izango dute horretarako.

Aurreko zenbakian jasotako epea hasi aurretik 2025eko abenduan balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuari 2024rako uko egiteko eta errebokatze aurkeztutako eskaerak aldi baliodunean aurkeztu direla ulertuko da. Hala ere, paragrafo honetan xedatutakoaren eraginpeko subjektu pasiboek beren aukera aldatu ahal izango dute aurreko paragrafoan jasotako epean.

Esandako ukoak dagokien errolda aitorpenaren bidez egin beharko dira, zergadunen errolda eta harekin loturiko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan jasotakoarekin bat etorriz.

Horiek gorabehera, erregimen bereziari uko egin zaiola ulertuko da baldin eta jarduerak ondorioak izan behar dituen urte naturaleko lehenengo hiruhilabeteko autolikidazioa epealdiaren barruan eta erregimen orokorra aplikatuta aurkezten bada. Jarduera hasi berrietan ere, erregimen bereziari uko egin zaiola ulertuko da baldin eta subjektu pasiboak jarduerari ekin ondoren aurkeztu behar duen lehenengo autolikidazioa epealdiaren barruan eta erregimen orokorra aplikatuta aurkezten badu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. 2025ean aplikatu beharreko ehunekoak, balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen erraztuko eragiketa arruntak direla eta sortutako kuota kalkulatzeko sektore krisiek eragindako abeltzaintza jarduera jakin batzuetarako.

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen erraztuko eragiketa arruntak direla eta sortutako kuota kalkulatzeko 2025ean aplikatu beharreko ehunekoak honako hauek dira ondoren adierazten diren jardueretan:

— Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak: 0,06625.

— Erlezaintza: 0,070.

Bigarrena. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren ondorioetarako, martxoaren 19ko 6/2024 Foru Dekretuaren bidez onetsitako moduluen aldaketa (2024rako balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren erregulazioa onesten duena).

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren ondorioetarako, martxoaren 19ko 6/2024 Foru Dekretuaren I. eranskinaren bidez onetsitako moduluak (2024rako balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren erregulazioa onesten duena) hauexek izango dira aipatzen diren jardueretarako:

— Jarduera: Arrautzetarako hegaztien eta esnetarako ardi, ahuntz eta behi azienden ustiapen intentsiboko abeltzaintza jarduera.

— Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,00 (2024ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era) eta 0,02 (2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra).

Jarduera: Apartzeria erregimenean egiten diren nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, jarduera horiek ondorengo ataletan ez dauden nekazaritzako ekoizkinak lortzeko egiten direnean.

– Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,00 (2024ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era) eta 0,02 (2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra).

– Jarduera: gazta lortzeko produktu naturalak eraldatzeko, egiteko edo manufacturatzeko prozesuak.

– Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,03102.

– Jarduera: oliba olioak eta hazi olioak lortzeko produktu naturalak eraldatzeko, egiteko edo manufacturatzeko prozesuak.

– Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,14104.

2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren jardueren titularrek, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren bidez ordaintzen badituzte zergak, urtea amaitutakoan edo jarduerari utzitakoan, erregimen erraztuaren urteko kuota kalkulatu beharko dute; horretarako, kontuan izan behar ditu egutegiko urteko sarrera guztiak, salbu eta dirulaguntza arruntak edo kapitalekoak, kalte-ordainak, balio erantsiaren gaineko zerga eta, hala behar izanez gero, eragiketa kargatzen duen baliokidetasun errekgua, 1. apartatu horretan aipatutako moduluak erabiliz.

Hirugarrena. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuko eragiketa arruntek sortutako kuota murriztea 2024an, goi geruzetako depresio isolatuak (DANA) eragindako udalerritan garatutako jarduera ekonomikoetarako, azaroaren 5eko 6/2024 Errege Lege Dekretuan aipatutakoaren arabera. Errege lege dekretu horren bidez, 2024ko urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean zenbait udalerritan goi geruzetako depresio isolatuak (DANA) eragindako kalteen aurrean erantzuteko presako neurriak hartzen dira.

Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, baldin eta enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten badituzte goi geruzetako depresio isolatuak (DANA) 2024ko urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean hainbat udalerritan eragindako kalteei aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen azaroaren 5eko 6/2024 Errege Lege Dekretuaren eranskinean aipatutako udalerritan, eta araubide berezi sinplifikatuari atxikita badaude, ehuneko 25 murriztu ahal izango dute jarduera horiengatik 2024an sortutako eragiketa arrunten kuoten zenbatekoa.

Murrizketa hori kontuan hartuko da 2024ko araubide berezi sinplifikatuaren urteko kuota kalkulatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025ean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

I. ERANSKINA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZAKO JARDUERAK
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGIMEN BEREZI ETA
ERRAZTUAREN MODULU ETA INDIZEAK

Jarduera: Okelatarako txerri aziendaren eta hegazti hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera: Arrautzatarako hegazti hazkuntzaren eta esnetarako ardi, ahuntz eta behi aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,04.

Jarduera: Okelatarako behi aziendaren eta unxi hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera: Hazteko txerri azienda eta behi aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza, eta beste ataletara berariaz bildu gabeko abeltzaintzako beste jarduera intentsibo edo estentsibo batzuk.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera: Okelatarako ardi eta ahuntz aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera: Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,09375.

Jarduera: Nekazariak, abeltzainak edo basogintzako jardueren titularrek gauzatutako bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak, eta abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak, hegaztiekin lotutakoak izan ezik.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera: Nekazari, abeltzain edo basogintzako jardueren titularrek gauzatutako jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21.

OHARRA: Adibide gisa, jarduera osagarrien barruan ondokoak sartuko dira:

Landa turismoa, eskulangintza, ehiza, arrantza, eta josteta jarduera eta aisiakoak; izan ere, horietan guztietan, nekazariak, abeltzainak edo basogintzako jardueren titularrak esku hartu behar du begirale, gidari edo aditu gisa: txangoak, mendi ibilaldiak, ibilbide ekologikoak eta abar.

Jarduera: Apartzeria erregimenean egiten diren nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, jarduera horiek ondorengo ataletan ez dauden nekazaritzako ekoizkinak lortzeko egiten direnean.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,04

Jarduera: Apartzeria erregimenean belar-bazkak lortzeko egiten diren nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,07625.

Jarduera: Apartzeria erregimenean egiten diren ehungintzarako landareak eta tabakorria lortzeko nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21.

Jarduera: Apartzeria erregimenean egiten diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21.

Jarduera: Gazta egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufacturatzeko prozesuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,070.

Jarduera: Mahaiko ardoa egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufacturatzeko prozesuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,2675.

Jarduera: Jatorri deituradun ardoa egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufacturatzeko prozesuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,2675.

Jarduera: Oliba olioak lortzeko produktu naturalak eraldatzeko, egiteko edo manufacturatzeko prozesuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,16406.

Jarduera: Aurrekoak ez diren beste produktu batzuk egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufacturatzeko prozesuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,19625.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN INDIZEAK ETA MODULUAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU OROKORRAK

1. Araubide berezi honen kuota hauxe izango da: subjektu pasiboak egindakoak diren araubide barruko jarduera guztien kuoten batura.

Oro har, jarduera bakoitza egiteagatik, balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa hauxe izango da: jarduera horren "eragiketa arrunten zioz sortutako kuoten" eta "eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuoten" arteko kenketaren emaitza. Emaitza "araubide erraztuaren kuota" izango da eta foru dekretu honen III. eranskineko 1. zenbakian adierazten den bezala zuzendu beharko da, hau da, zergari buruzko arauaren 123. artikuluko lehenengo apartatuko B letrako eragiketen kuotak gehituta eta aktibo finakoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak kenduta.

2. Aurreko 1. zenbakian adierazitakoaren ondorioetarako, jarduera bakoitzari erregimen erraztuan dagokion kuota zenbatzeko, ondoren ezarriko den prozedura egingo da:

2.1. Eragiketa arruntengatik sortutako kuota.

Jarduera batzuetan gai naturalak edo lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak egiten dira; bada, jarduera horietan eragiketa arrunten zioz sortutako kuota laborantza edo ustiapen bakoitzaren sarrera guztiak "eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizeaz" biderkatuz kalkulatu da (sarrera horietan ez dira zenbatuko ez diru laguntza arruntak edo kapitalekoak ez kalte-ordainak).

Beste jarduera batzuetan gai naturalak eraldatu, gertatu edo lantzeko jartzen dira; bada, jarduera horietan, eragiketa arrunten zioz sortutako kuota honelaxe lortuko da: prozesuan erabilitako izadiko ekoizkinen balioa, merkatuko prezioan, biderkatuko da berari dagokion "eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea"z eta emaitza hori izango da. Jarduera horietako eragiketa arrunten zioz sortutako kuota egotziko da, noiz eta gai naturalak eraldatu, gertatu eta lantzeko prozesu horietara eransten direnean. Dena dela, baldin eta prozesu horiek 1998ko ekitaldia baino lehenagokoetan aplikatu bazaizkie produktuei eta produktuak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera transmititzen badira, eragiteka arrunten zioz sortutako kuota prozesu horietan sortutako produktuak transmititzen diren unean egotziko da.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak egitean, balio erantsiaren gaineko zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren bosgarren eranskineko a) eta b) letrak aplikatzearen ondorioz aduana araubideaz besteko gordailu araubideko emateak egiten badira, ez dira aplikatuko indize eta moduluak, ematen diren gaiak balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden eragiketarako erabiliz gero.

2.2. Eragiketa arruntengatik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkaria.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotatik aktibo finkoek besteko ondasun eta eskubideak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira, baldin eta ondasun eta eskubideok jarduera egiteko erabiltzen badira, balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren VIII. tituluko I. kapituluaren eta zergaren araudian ezarritakoaren arabera; horri dagokionez, aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuaren osagaiak. Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 130. artikuluan aipatzen diren nekazaritza konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, baldin eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko ordaindu badituzte subjektu pasiboek. Dena dela, eragiketa arrunten zioz ordaindutako kuotaren zenbatekoaren ehuneko bat kendu ahal izango da, "justifikatzen zailak diren ordaindutako kuota" kontzeptuagatik.

Aurreko paragrafoko kenkariei arau hauek aplikatuko zaizkie:

1. Jarduera lokal jakin batean gauzatzen duten enpresari edo profesionalak ezingo dituzte kendu joan-etorri edo bidaia zerbitzuak eta ostalaritza edo otordu zerbitzuak direla eta sortutako kuotak. Horretarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.
2. Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan soilik kendu ahal izango dira. Beraz, ondorengo urteetan zerga ordainketan aplikatu beharreko erregimena gorabehera, ezingo dira kendu geroagoko zergaldi batean.
3. Enpresaburuak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu erregimen honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota izango da ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen lainekoa. Ez bada posible prozedura hori aplikatzea, jarduera bakoitzari egotziko zaio neurri berean.

2.3. Erregimen erraztuaren kuota eratorria.

Eragiketa arrunten zioz ordaindutako kuotatik eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuotak kenduko dira, aurreko 2.2. zerbakiaren adierazitakoaren arabera, eta horixe izango da erregimen berezi eta erraztuaren kuota.

HIRUHILEKO KUOTAK

3. Aurreko 2. zenbakian adierazitako kalkulua subjektu pasiboak ekitaldiaren amaieran egin beharko du; halaz guztiz, egutegiko urte bakoitzeko lehenengo hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan, subjektu pasiboak erregimen erraztuaren kuotaren zati baten konturako sarrera egingo du apiril, uztail eta urriko egutegiko lehenengo hogeita bost egunetan.

Autolikidazio horietan sartu beharreko zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da hiruhilekoko eragiketa arruntak direla eta sortutako kuota, eta “eragiketa arruntak direla eta sortutako kuotaren indizea” aplikatuko zaio hiruhilekoko guztizko diru sarrerren bolumenari, honako hauek kenduta: dirulaguntza arruntak edo kapitalekoak, indemnizazioak, bai eta balio erantsiaren gaineko zerga ere, eta, halakorik bada, eragiketa zergapetzen duen baliokidetasun errekargua, eta eragiketa arruntak direla eta sortutako kuotari honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkio:

JARDUERA	EHUNEKOA
Okelatarako txerri aziendaren eta hegazi hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	12
Arraztatarako hegazi hazkuntzaren eta esnetarako ardi, ahuntz eta behi aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	2
Okelatarako behi aziendaren eta unxi hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	24
Hazteko txerri azienda eta behi aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza, eta beste ataletara berariaz bildu gabeko abeltzaintzako beste jarduera intentsibo edo estentsibo batzuk.	32
Okelatarako ardi eta ahuntz aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	40
Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.	40
Nekazariak, abeltzainek edo basogintzako jardueren titularrek gauzatutako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak, eta abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak, hegaztiekin lotutakoak izan ezik.	48
Nekazari, abeltzain edo basogintzako jardueren titularrek gauzatutako jarduera osagarriak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan ez daudenak.	80
Apartzeria erregimenean gauzatzen diren nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, jarduera horiek ondorengo ataletan ez dauden nekazaritzako ekoizkinak lortzeko egiten direnean.	2
Apartzeria erregimenean belar-bazkak lortzeko egiten diren nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	28
Apartzeria erregimenean egiten diren ehungintzarako landareak eta tabakorria lortzeko nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	44
Apartzeria erregimenean egiten diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	44
Gazta egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufakturatzekeo prozesuak.	28

Mahaiko ardoa egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufakturatzeneko prozesuak.	80
Jatorri deituradun ardoa egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufakturatzeneko prozesuak.	80
Oliba olioak lortzeko produktu naturalak eraldatzeko, egiteko edo manufakturatzeneko prozesuak.	80
Aurrekoak ez diren beste produktu batzuk egiteko produktu naturalak eraldatu, landu edo manufakturatzeneko prozesuak.	80

Dena dela, produktu naturalak eraldatu, landu eta manufakturatzeneko jardueretan, aipatutako ehunekoak honi aplikatuko zaio: hiruhilekoan erabilitako produktu naturalen balioari dagokion “eragiketa arruntak direla eta sortutako kuotaren indizea” merkatuko prezioarekin biderkatuta lortutako emaitza.

URTEKO KUOTA

4. Urtea amaitutakoan edo jarduerari utzitakoan, subjektu pasiboak erregimen erraztuaren urteko kuota kalkulatu beharko du; horretarako, kontuan izan behar ditu egutegiko urteko sarrera guztiak, salbu eta dirulaguntza arruntak edo kapitalekoak, kalte-ordainak, balio erantsiaren gaineko zerga eta, hala behar izanez gero, eragiketa kargatzen duen baliokidetasun errekarua, aurreko 2. puntuaren ezarritakoaren arabera.

5. Ekitaldiko azken autolikidazioaren erregimen erraztuaren urteko kuota adierazi behar da, eta hartatik kendu ekitaldiko lehenengo hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan likidatutako zenbatekoak.

Ekitaldiko azken autolikidazioaren emaitza negatiboa bada, subjektu pasiboak eskatu ahal izango du zergari buruzko arauaren 115. artikuluko lehenengo apartatuan aurreikusita dagoen moduan egiteko itzulketa, edo eskatu ahal izango du bere aldeko saldoa aldizkako hurrengo autolikidazioetan konpentsatzeko.

6. Urte naturaleko azken hiruhilekoari dagokion autolikidazioa hurrengo urteko urtarilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

7. Foru dekretu honen III. eranskineko 1. zenbakian adierazitako eran egin behar dira zergari buruzko arauaren 123. artikuluko lehenengo apartatuko B letran adierazitako eragiketei dagozkien kuoten likidazioa eta aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkaria.

II. ERANSKINA
BESTE JARDUERA BATZUK
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGIMEN BEREZI ETA
ERRAZTUAREN MODULU ETA INDIZEAK

Jarduera: Okintza eta opilgintza.

JEZaren epigrafea: 419.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.693,54
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	7,09
3	Labearen azalera	100 dezimetro koadro	30,47

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 644.1 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona sartzen da.

Jarduera: Opilgintza, pastelgintza eta gailtagintza.

JEZaren epigrafea: 419.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.064,67
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro koadro	59,34

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan gozogintza gazituko ekoizkinak eta aurrez prestatutako platerak egiteari dagokiona sartzen da, baldin eta jarduera horiek jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da aipatu gaiak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 644.3 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak gauzatzeari dagokiona.

Jarduera: Oreki frijituen industriak.

JEZaren epigrafea: 419.3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	10,63

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da aipatu gaiak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 644.6 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona.

Jarduera: Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.

JEZaren epigrafea: 423.9

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	10,63

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da aipatu gaiak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 644.6 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona.

Jarduera: Haragi txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak.

JEZaren epigrafea: 642.1, 2 eta 3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.753,76
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	2,21

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

OHARRA: Aurreko zeinuak edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da aurrez prestatutako platerak egiteari dagokiona, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

OHARRA: Urdaitegiko ekoizkinak eta aurrez prestatutako platerak egiteko erabiltzen den azalera izango da lokalaren azalera.

Jarduera: Oilaskoak erretzeagatik 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak.

JEZaren epigrafea: 642.5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Oilaskoak erretzeko kontratatutako langileak	Pertsona	673,16
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	13,29
3	Erregailuaren edukiera	Pieza	62,89

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: ogia, gozokiak, konfiteak eta antzekoak, eta esnea eta esnekiak.

JEZaren epigrafea: 644.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.090,35
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro koadro	40,75
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek egiteari dagokiona sartzan da, jarduera nagusiaren osagarri gisa eginez gero: gozogintza gazituko ekoizkinak eta aurrez prestatutako platerak egitea; jardueraren gai diren ekoizkinak dastatzea, edari, kafe, infusio edo disolbagarriekin batera; eta "catering" jarduerak, bai eta loteriak merkaturatzea ere.

Jarduera: Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak.

JEZaren epigrafea: 644.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.090,35
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro koadro	40,75
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena bakarrik sartzan da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada: 644.2 epigrafeko jarduerak (zergak baliokidetasun errekarquaren erregimen berezian ordaintzen dituztenena izan ezik) eta loteriak merkaturatzea.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinak

JEZaren epigrafea: 644.3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.064,67
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro koadro	59,34
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da, jarduera nagusiaren osagarri gisa eginez gero: gozogintza gazituko ekoizkinak eta aurrez prestatutako platerak egitea; jardueraren gai diren ekoizkinak dastatzea, edari, kafe, infusio edo disolbagarriekin batera; eta "catering" jarduerak, bai eta loteriak merkaturatzea ere.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janurrekoak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatzeko prestakinak eta edari freskagarriak.

JEZaren epigrafea: 644.6

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	10,63
3	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena bakarrik sartzen da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada: 644.6 epigrafeko jarduerak (zergak baliokidetasun errekaruaren erregimen berezian ordaintzen dituztenena izan ezik) eta loteriak merkaturatzea.

Jarduera: Norberaren jarduerarekin lotutako artikuluen konponketa, 653.2. epigrafean matrikulatutako txikizkako merkatariek eginak

JEZaren epigrafea: 653.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Konponketetarako kontratatutako langileak	Pertsona	5.819,91
2	Konponketa tailerraren azalera	Metro koadroa	5,71

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

OHARRA: aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan jarduerako gaien konponketa baino ez da sartzen.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materialak, saneamenduko gaiak eta altzariak, atearak, leihoak, pertsianak eta abar.

JEZaren epigrafea: 653.4 eta 5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	12.317,71
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	239,74
3	Lokalaren azalera	Metro koadroa	9,10

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: lurreko ibilgailuentzako osagarriak eta ordezeko piezak.

JEZaren epigrafea: 654.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	15.558,35
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	272,80
3	Ibilgailuaren zerga potentzia	CVF	620,03

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

Jarduera: Denetarikoa makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik)

JEZaren epigrafea: 654.5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	18.021,89
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	74,41
3	Ibilgailuaren zerga potentzia	CVF	82,66

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

Jarduera: Txikizkako merkataritza: ibilgailu mota guztietarako gurpilazalak, bandak edo bandajeak eta aire ganberak.

JEZaren epigrafea: 654.6

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	14.152,98
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	206,67
3	Ibilgailuaren zerga potentzia	CVF	372,02

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

Jarduera: 659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataria, negatiboak eta inprimatutako argazki materiala biltzeko zerbitzua emateagatik, ondoren inoren laborategietan prozesatzeko, eta kopiak eta argazki handituak emateagatik.

JEZaren epigrafea: 659.3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Argazkilaritza materiala jasotzeko kontratatutako langileak	Pertsona	14.533,25
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	30,59

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

Jarduera: 659.4 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkataria, kanpoko publizitate zerbitzua emateagatik eta garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak eta loteriak merkaturatzeagatik.

JEZaren epigrafea: 659.4

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Eragiketa horiengatik jasotako komisioen eta kontraprestazioen zenbateko osoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 75.

Jarduera: 647.1, 2 eta 3, 652.2 eta 3, eta 662.2 epigrafeetan matrikulaturiko txikizkako merkataria, loteriak merkaturatzeagatik.

JEZaren epigrafea: 647.1, 2 eta 3, 652.2 eta 3, eta 662.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Eragiketa horiengatik jasotako komisioen zenbateko osoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 75.

Jarduera: Oreki frijituen (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituen, janaurrekoen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien merkataritzan soilik diharduten merkataritzako establezimendu iraunkorretatik kanpoko txikizkako merkataritza, norberaren instalazioan edo ibilgailuan txurrogintzako produktu propioak eta patata frijituak egiteko ahalmena dutenak.

JEZaren epigrafea: 663.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.881,32
2	Ibilgailuaren zerga potentzia	CVF	43,40

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren 663.1 epigrafeko oharraren arabera fabrikatu eta merkaturatutako gaien fabrikazio eta merkaturatzeari dagokiona bakarrik.

Jarduera: Bi sardexkako jatetxeak.

JEZaren epigrafea: 671.4

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.993,81
2	Potentzia elektrikoa	Kontrataturiko kW-ak	150,57
3	Mahaia	Mahaia	168,29
4	A motako makinak	A motako makina	239,15
5	B motako makinak	B motako makina	841,46
6	Loteria komisioen eta kirol apustueterako makinaren komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact disc eta musika bideoak erreproduzitzeko makinak, loteriak, kirol apustueterako makinak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Sardexka bakarreko jatetxeak.

JEZaren epigrafea: 671.5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.400,36
2	Potentzia elektrikoa	Kontrataturiko kW-ak	70,86
3	Mahaia	Mahaia	124,00
4	A motako makinak	A motako makina	239,15
5	B motako makinak	B motako makina	841,46
6	Loteria komisioen eta kirol apustueterako makinaren komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact disc eta musika bideoak erreproduzitzeko makinak, loteriak, kirol apustuatarako makinak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Kafetegiak.

JEZaren epigrafea: 672.1, 2 eta 3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.356,07
2	Potentzia elektrikoa	Kontrataturiko kW-ak	124,00
3	Mahaiaik	Mahaia	70,86
4	A motako makinak	A motako makina	221,43
5	B motako makinak	B motako makina	832,60
6	Loteria komisioen eta kirol apustuatarako makinaren komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact disc eta musika bideoak erreproduzitzeko makinak, loteriak, kirol apustuatarako makinak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.

JEZaren epigrafea: 673.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.294,97
2	Potentzia elektrikoa	Kontrataturiko kW-ak	69,09
3	Mahaiaik	Mahaia	60,23
4	Barraren luzera	Metroa	77,95
5	A motako makinak	A motako makina	221,43
6	B motako makinak	B motako makina	655,45
7	Loteria komisioen eta kirol apustuatarako makinaren komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 6.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact disc eta musika bideoak erreproduzitzeko makinak, loteriak, kirol apustuatarako makinak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Beste kafetegi eta taberna batzuk.

JEZaren epigrafea: 673.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.577,52
2	Potentzia elektrikoa	Kontraturiko kW- ak	47,83
3	Mahaia	Mahaia	56,69
4	Barraren luzera	Metroa	62,89
5	A motako makinak	A motako makina	177,15
6	B motako makinak	B motako makina	655,45
7	Loteria komisioen eta kirol apustuatarako makinen komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 6.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen dutena sartzen da: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact disc eta musika bideoak erreproduzitzeko makinak, loteriak, kirol apustuatarako makinak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Kiosko, etxola, txosna edo antzeko beste lokal batzuetan ematen diren zerbitzuak.

JEZaren epigrafea: 675

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.357,86
2	Potentzia elektrikoa	Kontraturiko kW- ak	50,48
3	Lokalaren azalera	Metro koadroa	4,06
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 3.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen ondoriozko kuotan loteriak merkaturatzeari dagokiona sartzen da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: Txokolategi, izozkitegi eta hortxategietan ematen diren zerbitzuak.

JEZaren epigrafea: 676

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.817,55
2	Potentzia elektrikoa	Kontraturiko kW- ak	141,72
3	Mahaiaik	Mahaia	46,05
4	A motako makinak	A motako makina	177,15
5	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sartzen dira: txokolate, izozki eta hortxatak egitea; jendeari izozki, hortxata, txokolatea, infusioak, kafea eta disolbagarriak, edari freskagarriak, eta opilgintza, pastelgintza, konfitegintza eta postregintzako ekoizkinak saltzea, hauek haiekin batera saldu ohi direnez dastatzeko; jolasteko makinak, hala nola, balantzaxoak, zaldiko-maldikoak, animalia berbaldunak eta abar, bai eta loteriak merkaturatzea ere, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Izar bakarreko edo biko hotel eta moteletan ematen den ostatu zerbitzua.

JEZaren epigrafea: 681

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.604,09
2	Plaza kopurua	Plaza	53,14
3	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

OHARRA: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen ondoriozko kuotan loteriak merkaturatzeari dagokiona sartzen da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: Ostatueta ematen den ostatu zerbitzua.

JEZaren epigrafea: 682

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.533,22
2	Plaza kopurua	Plaza	55,80

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 20.

Jarduera: Apopilo-etxeetan ematen den ostatu zerbitzua.

JEZaren epigrafea: 683

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.762,62
2	Plaza kopurua	Plaza	29,22

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

Jarduera: Etxerako tresna elektrikoaren konponketa.

JEZaren epigrafea: 691.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.819,91
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	5,71

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

Jarduera: Auto, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.

JEZaren epigrafea: 691.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	8.556,27
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	16,54

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

Jarduera: Oinetakoaren konponketa.

JEZaren epigrafea: 691.9

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.000,89
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	36,37

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

Jarduera: Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG). (oinetakoaren konponketa eta artelaren, altzarien, antzinako gauzen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik).

JEZaren epigrafea: 691.9

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.381,76
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	13,23

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

Jarduera: Industria makinien konponketa.

JEZaren epigrafea: 692

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	9.721,90
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	53,75

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

Jarduera: Bestelako BISG konponketa batzuk.

JEZaren epigrafea: 699

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	7.671,69
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	46,31

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

Jarduera: hiriko talde garraioa eta errepede bidezko bidaiarien garraioa.

JEZaren epigrafea: 721.1 eta 3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.700,62
2	Eserleku kopurua	Eserlekua	79,72

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 1.

Jarduera: Autotaxi bidezko garraioa.

JEZaren epigrafea: 721.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	903,46
2	Ibilitako distantzia	1.000 kilometro	8,78

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 10.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sortzen duena sartzen da: ibilgailua euskarri gisa darabilten publizitate zerbitzuak ematea, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: errepede bidezko salgai garraioa, hondakinak izan ezik.

JEZaren epigrafea: 722

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.149,99
2	Ibilgailuen zama	Tona	388,55

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 10.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sartzen dira: garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak, hala nola, salgaiak garraiatu, gordailatu eta biltegitratzeko agentziak eta abar, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

OHARRA: Baldin eta hondakinak eta hondakin ez diren salgaiak garraiatzen badira, jarduera bakoitzari aplikatu beharreko moduluak mota bakoitzaren benetako jardunaren arabera hainbanatuko dira. Halaber, jarduera bakoitzari berari dagokion eragiketa arrunten gutxieneko kuota aplikatuko zaio. Ondoren, gutxieneko kuoten batura oinarria erabiliko da jarduera osoari erregimen erraztuaren arabera dagokion kuota kalkulatzeko.

Jarduera: errepede bidezko hondakinaren garraioa.

JEZaren epigrafea: 722

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.948,64
2	Ibilgailuen zama	Tona	181,58

Eragiketa arrunten gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 1.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan honako hauek sartzen dira: garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak, hala nola, salgaiak garraiatu, gordailatu eta biltegitratzeko agentziak eta abar, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

OHARRA: Baldin eta hondakinak eta hondakin ez diren salgaiak garraiatzen badira, jarduera bakoitzari aplikatu beharreko moduluak mota bakoitzaren benetako jardunaren arabera hainbanatuko dira. Halaber, jarduera bakoitzari berari dagokion eragiketa arrunten gutxieneko kuota aplikatuko zaio. Ondoren, gutxieneko kuoten batura oinarria erabiliko da jarduera osoari erregimen erraztuaren arabera dagokion kuota kalkulatzeko.

Jarduera: Ibilgailuak koipeztatzea eta garbitzea.

JEZaren epigrafea: 751.5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	8.556,27
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	16,54

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

Jarduera: Etxe-aldaketa zerbitzua.

JEZaren epigrafea: 757

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.712,43
2	Ibilgailuen zama	Tona	256,27

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 10.

Jarduera: Mezuen eta mandatuen garraioa, baldin eta jarduera norberaren garraiobideen bitartez soilik gauzatzen bada.

JEZaren epigrafea: 849.5

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.149,99
2	Ibilgailuen zama	Tona	388,55

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 10.

Jarduera: Lur gaineko eta ur gaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea.

JEZaren epigrafea: 933.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.000,89
2	Ibilgailu kopurua	Ibilgailuak:	256,27
3	Ibilgailuaren zerga potentzia	CVF	107,47

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

OHARRA: Aurreko modulua ez dira aplikatuko baldin eta erabiltzen badira urtarrilaren 19ko 12/1993 Arauzintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluko 1. apartatuko 9. zenbakian xedatutakoaren arabera balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden eragiketak gauzatzeko.

Jarduera: Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza (BISG).

JEZaren epigrafea: 933.9

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.413,95
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	2,64

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

OHARRA: Aurreko moduluak ez dira aplikatuko baldin eta erabiltzen badira urtarilaren 19ko 12/1993 Arauzintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluko 1. apartatuko 9. zenbakian xedatutakoaren arabera balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden eragiketak gauzatzeko.

Jarduera: Kirol hobekuntzarako eskola eta zerbitzuak.

JEZaren epigrafea: 967.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.441,10
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	5,58

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 3.

Jarduera: Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa.

JEZaren epigrafea: 971.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.844,13
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	14,06

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 48.

Jarduera: Gizonezko eta emakumezkoentzako ile apainketako zerbitzuak.

JEZaren epigrafea: 972.1

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.562,75
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	41,33
3	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	17,48

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 13.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da manikura, depilazio, pedikura eta makillajeko zerbitzuek sortzen dutena, baldin eta jarduera horiek jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Apaindegiak eta edertasun institutuak.

JEZaren epigrafea: 972.2

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.562,75
2	Lokalaren azalera	Metro koadroa	41,33
3	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kW/h	17,36

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren ehuneko 32.

Jarduera: Fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuak.

JEZaren epigrafea: 973.3

Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko kuota, unitateko Euroak
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	13.136,13
2	Potentzia elektrikoa	Kontraturiko kW	239,74

Eragiketa arrunten gutxienerako kuota: eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren ehuneko 30.

OHARRA: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan sartzen da planoen erreproduktzio zerbitzuek eta lanak azalezatze zerbitzuek sortzen dutena, baldin eta jardura horiek fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuen jardura nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

BALIO ERANTSIAREN GAINKO ZERGAREN INDIZEAK ETA MODULUAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU OROKORRAK

1. Araubide berezi honen kuota hauxe izango da: subjektu pasiboak egindakoak diren araubide barruko jardura guztien kuoten batura.

Oro har, jardura bakoitza egiteagatik, balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa hauxe izango da: erregimen berezi erraztuaren menpeko jardura horren “eragiketa arruntengatik sortutako kuota” ken “eragiketa arruntengatik jasan edo ordaindutako kuota” egin eta horren emaitza. Sartu beharreko kuotak “gutxienerako zenbatekoa” izango du. Emaitza “araubide erraztuaren kuota” izango da eta zuzendu egin behar da, foru dekretu honen III. eranskinean esaten den bezala, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 123. artikuluko lehenengo apartatuko B letrako eragiketen kuota gehituta eta aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuota kenduta.

2. Lehenengo zenbakian adierazitakoaren ondorioetarako, ondoren ezarriko den prozedura egingo da jardura bakoitzaren kuota zenbatzeko:

2.1. Eragiketa arruntengatik sortutako kuota.

Eragiketa arruntengatik sortutako kuota jarduera bakoitzeko ezarritako moduluen zenbatekoen batura izango da. Moduluen zenbatekoa kalkulatzeko, berriz, bakoitzari esleituriko kopurua jardueran erabili edo instalatutako unitateen kopuruaz biderkatuko da.

Moduluen unitateen kopurua zenbatekoa den zehazteko, arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Enplegatutako langileak. Enplegatutako pertsonatzat soldatarik gabekoak, jardueraren titularrak barne, eta soldatapekoak hartuko dira.

a) Soldatarik gabeko langileak. Enpresaburua ez da soldatapeko langilea. Halakotzat hartuko dira haren ezkontidea eta berarekin bizi diren adingabeko seme-alabak ere, baldin eta jardueran aritzen badira eta hurrengo letran ezarritakoaren arabera soldatapeko langile ez badira.

Enpresaburua soldatapeko ez den langile gisa kontuan hartuko da. Egiaztatutako arrazoi objektiboak direla eta (hala nola, erretiroa, ezintasuna, jardueren aniztasuna edo ustiapenaren aldi baterako itxiera), urtean lanorduen kopurua 1.800 ordu baino gutxiagokoa bada, jardueran benetan egindako denbora neurtuko da. Hala gertatzen denean, jarduerako zuzendaritza, antolaketa eta plangintza lanetan egindako denbora eta, oro har, jardueraren titulartasunari datzekion zereginetan egindako denbora neurtzeko, enpresaburua urtean 0,25 pertsona gisa kontuan hartuko da, benetako dedikazioa handiagoa edo txikiagoa dela frogatu ezean.

Soldatapekoak ez diren gainerako pertsonen kasuan, soldatapekoa ez den pertsonatzat hartuko da urtean mila zortziehun lanordu gutxienez egiten dituen.

Urtean egindako lanorduak 1.800 baino gutxiago badira, urtean benetan egindako lanorduen eta mila eta zortziehunen arteko proportzioa hartuko da soldatarik gabeko pertsonaren zenbatekotzat.

Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten soldatarik gabeko langileak ehuneko 75ean konputatuko dira.

Ezkontidea edo adingabeko seme-alabak soldata gabekoak badira, ehuneko 50ean konputatuko dira, baldin eta jardueraren titularrak osorik konputatzen bada (aurreko paragrafoan ezarritako txikitzea aplikatu baino lehen, behar denean) eta soldatapeko bakarria badago. Murrizketa ehuneko 33ko desgaitasunagatik edo handiagoagatik bidezko dena aplikatu ondoren aplikatuko da.

b) Soldatapeko langileak. Soldatapeko pertsona da jardueran lan egiten duen beste edonor. Bereziki, soldatapeko langiletzat hartuko dira subjektu pasiboaren ezkontidea eta berarekin bizi diren adingabeko seme-alabak, baldin eta, lan kontratua izanik eta Gizarte Segurantzaren afiliaturik, hark egiten duen enpresa jardueran lan egiten badute jarraitasunarekin. Ez dira soldatapeko pertsonatzat hartuko lantokietan derrigorrezko prestakuntza modulua egiten duten lanbide heziketako ikasleak.

Soldatapeko langile gisa hartuko da urtean lan hitzarmenean adierazitako ordu kopurua egiten dituen edo, hitzarmenik ezean, urtean mila zortziehun ordu egiten dituen. Urtean lanean egindako ordu kopurua hortik gorakoa edo beherakoa denean, soldatapeko pertsonaren zenbatekoa lanean benetan egindako ordu kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan ezarritako kopuruaren (edo 1.800en) arteko proportzioa izango da.

Hemeretzi urte baino gutxiago duten eta ikasketa edo prestakuntza kontratu baten bidez lan egiten duten soldatapeko langileei ehuneko 60 konputatuko zaie. Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten soldatapeko langileak ehuneko 40an konputatuko dira. Txikitzeak bateraezinak dira.

2. Lokalaren azalera. Lokalaren azalera honako hauetan zehaztutakoa izango da: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak aplikatzeko Instrukzioaren 14.1.F Erregelako a), b), c) eta h) letrak eta Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriko e) letra.

3. Energia elektrikoaren kontsumoa. Energia elektrikoaren kontsumotzat joko da enpresa hornitzaileak fakturatutakoa. Baldin eta fakturan energia aktiboaren eta errektiboaren artean bereizten bada, lehenengoa bakarrik konputatuko da.

4. Potentzia elektrikoa. Potentzia elektrikotzat joko da energiaz hornitzen duen enpresarekin kontratatutakoa.

5. Labearen azalera. Labearen azaleratzen joko da haren ezaugarri teknikoari dagokiona.

6. Mahaia. Mahaia unitate gisa konputatzeko, lau pertsona esertzeko modukoa izan behar da. Pertsona gehiagorentzako edo gutxiagorentzako lekua duten mahaiek aplikatu beharreko moduluaren zenbatekoa handitu edo murriztuko dute, proportzioan.

7. Ibilgailuaren zama. Ibilgailu baten edo ibilgailu multzo baten edukiera bi kopuru hauen arteko aldea izango da: baimendutako gehieneko masa guztia (azterketa teknikoko txarteletan ezarritako administrazio mugak kontuan hartuz zehaztuko da; 40 tona gehienez) eta ibilgailu eramaileen taren (kamioi, atoi, erdiatoi eta trakzioburu hutsaren pisua) batura. Kilogramo edo tonatan adieraziko da, dagokionaren arabera; tonatan emanez gero, bi dezimal jarri behar dira.

Garraioan edukiontzia baizik erabiltzen ez badira, tara hiru tona izango da.

Erdiatoi asko erabiltzen dituzten trakzioburuei dagokienez, haien tara zortzi tona izango da gehienez.

8. Plazak. Plazatzat joko dira establezimenduaren ostatu emateko gaitasun unitateen kopurua.

9. Eserlekuak. Eserlekutzat joko dira ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartelean agertzen den unitate kopurua, alde batera utzita gidariarena eta laguntzailearena.

10. Jolasteko makinak. A edo B motako jolas makinatzen joko dira Euskal Herriko Autonomi Elkartearen jokoak arautzen duen Legean era horretan definitutakoak.

Ez dira konputatuko jardueraren titularraren jabetzakoak direnak.

11. Ibilgailuaren zerga potentzia. ZPF modula, hala, Ikuskaritza Teknikoaren Txartelean ageri den zerga potentzia izango da.

12. Barraren luzera. Barra zein luze den zehazteko, barratzat hartuko da bezeroek eskatzen dituzten edariak eta janariak zerbitzatzeko eta jartzen diren erakusmahaiak. Luzera metrotan adieraziko da, bi dezimalekin; alde publikoa neurtuko da eta ez da neurtuko zerbitzariak soilik erabiltzeko den zatia. Barra osagarriak badago hormetan, zutabeetan eta abarretan itsatsirik, haien luzera kontuan hartuko da modula kalkulatzeko, aulkiak izan ala ez.

2.2. Eragiketa arruntengatik sortutako kuotaren eta jasandako kuoten arteko aldea.

Eragiketa arruntengatik sortutako kuotatik, aktibo finkoen besteko ondasun eta eskubideak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira, baldin eta ondasun eta eskubideak jardura egiteko erabiltzen badira, balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren VIII. tituluko I. kapituluaren zergaren arautegian ezarritakoaren arabera; horri dagokionez, aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuaren osagaiak. Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 130. artikuluan aipatzen diren nekazaritza konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, baldin eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko ordaindu badituzte subjektu pasiboak. Dena dela, eragiketa arrunten zioz ordaindutako kuotaren zenbatekoaren ehuneko bat kendu ahal izango da, "justifikatzen zailak diren ordaindutako kuota" kontzeptuagatik.

Aurreko paragrafoko kenkariei arau hauek aplikatuko zaizkie:

1. Jarduera lokal jakin batean gauzaten duten enpresari edo profesionalak ezingo dituzte kendu joan-etorri edo bidaia zerbitzuak eta ostalaritza edo otordu zerbitzuak direla eta sortutako kuotak. Horretarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.

2. Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan soilik kendu ahal izango dira. Beraz, ondorengo urteetan zerga ordainketan aplikatu beharreko erregimena gorabehera, ezingo dira kendu geroagoko zergaldi batean.

3. Enpresaburuak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu erregimen honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota izango da ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen lainekora. Ez bada posible prozedura hori aplikatzea, jarduera bakoitzari egotziko zaio neurri berean.

2.3. Erregimen erraztuaren kuota eratorria.

Erregimen erraztuaren kuota honako kopuru hauetatik handiena izango da:

- Aurreko 2.2. puntukoa.

Sasoiko jardueretan, kopuru hori beheragoko 6. zenbakiko indize zuzentzaileaz biderkatuko da.

- Gutxieneko kuota, balio erantsiaren gaineko zergako edo antzeko kuoten zenbatekoa gehituta; izan ere, kuota horiek zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo lortu behar izan dira, eta subjektu pasiboari itzuli behar izan zaizkio ekitaldian; beste alde batetik, kuota horiek erregimen erraztuaren menpeko jarduera gauzatzeari erabiltzeko eskuratutako ondasun edota eskubideenak izan behar dute.

Gutxieneko kuota hori honela kalkulatu da: ehuneko bat, foru dekretu honen II. eranskinean dagoen jarduera bakoitzeko ezarritakoa, aplikatuko zaio 2.1. zenbakian zehaztutako eragiketa arruntaren kuotari.

Sasoiko jardueretan, gutxieneko kuota 6. zenbakian ezarritako indize zuzentzaileaz biderkatuko da.

HIRUHILEKO KUOTAK

3. Aurreko 2. idatz zatian adierazitakoa aplikatzearen emaitza, beraz, subjektu pasiboak kalkulatu beharko du ekitaldi bakoitzaren bukaeran. Hala ere, urte bakoitzeko lehenengo hiru hiruhilekoei dagozkien autolikidazioetan, subjektu pasiboak apirilaren, uztailaren eta urriaren lehenengo hogeita bost egunetan erregimen erraztuaren kuota eratorriaren zati bat kontura sartu beharko du. Zati hori, eragiketa arruntengatik sortutako kuotari (aurreko 2.1 zenbakian adierazitakoaren arabera kalkulata) ondoren jarduera bakoitzerako adierazten den ehunekoak aplikatzearen emaitza izango da:

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	JARDUERA EKONOMIKOA	EHUNEKOA
419.1	Okintza eta opilgintza	6
419.2	Opilgintza, gozogintza eta gailtagintza	9
419.3	Oreki frijituen industriak	10
423.9	Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea	10
642.1, 2 eta 3	Haragi txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak	10

642.5	Oilaskoak erretzeagatik 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak	10
644.1	Txikizkako merkataritza: ogia, gozokiak, konfiteak eta antzekoak, esnea eta esnekiak barne.	6
644.2	Ogien, ogi berezien eta opilen saltokiak	6
644.3	Txikizkako merkataritza: gozogintza, opilgintza, konfitegintzako eskoizkinak	9
644.6	Txikizkako merkataritza: oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janaurrekoak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatezko prestakinak eta edari freskagarriak	10
653.2	Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratresnak, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuak eta sukaldeko altzariak	15
653.4 eta 5	Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materialak, saneamenduko gaiak eta altzariak, ateak, leihoak, pertsianak eta abar.	4
654.2	Txikizkako merkataritza: motorrik gabeko ibilgailuetarako osagarriak eta ordezeko piezak	4
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxekeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik)	4
654.6	Txikizkako merkataritza: motorrik gabeko lurreko ibilgailuetarako gurpilazalak, bandak edo bandajeak eta aire ganberak; gai horien handizkako merkataritzako jarduerak izan ezik	4
659.3	659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkatariak, negatiboak eta inpresionatutako argazkigintza materiala biltzeagatik ondoren inoren laborategietan prozesatzeko, eta kopiak eta argazki handituak emateagatik	4
663.1	Oreki frijituen (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituen, janaurrekoen, fruitu lehorren, gozokiak, txokolatezko prestakinen eta edari freskagarrien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza, norberaren instalazioan edo ibilgailuan txurrogintzako produktu propioak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik	6
671.4	Bi sardexkako jatetxeak	4
671.5	Sardexka bakarreko jatetxeak	6
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak	4

673.1	Kategoria bereziko kafetegiak eta tabernak	2
673.2	Beste kafetegi eta taberna batzuk	2
675	Kiosko, etxola, txosna edo antzeko beste lokal batzuetan ematen diren zerbitzuak	1
676	Txokolategi, izozkitegi eta hortxatategietan ematen diren zerbitzuak	6
681	Izar bakarreko edo biko hotel eta moteletan ematen den ostatu zerbitzua	6
682	Ostatuetan ematen den ostatu zerbitzua	6
683	Apopilo-etxeetan ematen den ostatu zerbitzua	9
691.1	Etzerako tresna elektrikoaren konponketa	15
691.2	Auto, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa	9
691.9	Oinetakoaren konponketa	15
691.9	Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG) (Oinetakoaren konponketa eta artelaren, altzarien, antzinako gauzen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik)	15
692	Industria makinen konponketa	9
699	Bestelako BISG konponketa batzuk	10
721.1 eta 3	Hiriko talde garraioa eta errepide bidezko bidaiarien garraioa	1
721.2	Autotaxi bidezko garraioa	5
722	Errepide bidezko salgai garraioa, hondakinak izan ezik	5
722	Errepide bidezko hondakinen garraioa	1
751.5	Ibilgailuak koipeztatzea eta garbitzea	9
757	Etxe-aldaketa zerbitzua	5
849.5	Mezuen eta mandatuen garraioa, baldin eta jarduera norberaren garraio bideen bitartez soilik gauzatzen bada	5
933.1	Lur gaineko eta ur gaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea	15
933.9	Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, hala nola, hizkuntzak, mozketak eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza (BISG).	15
967.2	Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak	2
971.1	Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa	15
972.1	Gizonezko eta emakumezkoentzako ile apainketako zerbitzuak	5
972.2	Apaindegiak eta edertasun institutuak	10

973.3	Fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuak	9
-------	--	---

4. Lehenengo hiruhilekoetako bakoitzari dagokion sarrera kalkulatzeko, urtealdi bakoitzean hasiera batean aplikatu beharreko modulu eta indize zuzentzaileak izango dira jardueraren sektoreko oinarri datuei dagozkionak, erreferentziatzat urte bakoitzeko urtarrilaren 1a hartuta.

Oinarri daturen bat urteko lehenengo egunean ezin zehaztu daitekeenean, aurreko urtekoa hartuko da. Arau hori bera aplikatuko da sasoiko jardueretan ere.

Aurreko urtean jarduera egin ez denean, hasieran ezartzen diren moduluak eta indize zuzentzaileak hasierako eguneko oinarri datuei dagozkienak izango dira.

Modulu bakoitzaren oinarri datuak ez badira zenbaki osoak, bi zenbaki dezimalekin adieraziko dira.

5. Jarduerari hasiera urtarrilaren 1az gero ematen zaionean, edo abenduaren 31 baino lehen uzten denean, edo inguruabar biak batera gertatzen direnean, aurreko 3. zenbakian adierazitako epeetan sartu beharreko kopuruak honela kalkulatu dira:

1. Eragiketa arruntengatik sortutako kuota, aurreko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera, jarduera arloari dagozkion moduluak aplikatuta zehaztuko da.

2. Jarduerako hiruhileko natural oso bakoitzeko, aurreko 3. zenbakian jarduera bakoitzerako adierazitako ehunekoak sartuko da.

3. Egutegiko lehenengo hiruhileko ez osoan sartu behar den kopurua honela kalkulatu da: egutegiko hiruhileko horretan jarduera egiten izan den egunen kopurua zatituko da hiruhileko horretako egun natural guztiez; hortik zatidura bat lortuko da, eta zatidura hori biderkatuko da egutegiko hiruhileko osoari dagokion kuotaz.

6. Sasoiko jardueretan, eragiketa arruntetatik sortutako kuota aurreko 4. zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Eragiketa arruntengatik egunean sortutako kuota kalkulatzeko, urtean sortutako kuotaren eta aurreko urtean izandako jarduera egunen arteko zatiketa egin behar da.

Zenbaki honetan aipatutako jardueretan, egutegiko hiruhileko bakoitzarengatik egin beharreko diru sarrera zein den jakiteko, hau egingo da: hiruhileko horretan jarduera gauzatu den egun naturalen kopurua bider eragiketa arruntengatik sortutako eguneroko kuota eginez ateratzen den emaitzari jarduera bakoitzari dagokion ehunekoak aplikatuz.

Zenbaki honetan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko kuota honako indize zuzentzaile hauek aplikatuta gehituko da:

- Sasoiko 60 egun arte: 1,50.
- Sasoiko 61 – 120 egun: 1,35.
- Sasoiko 121 eta 180 egun: 1,25.

Indize hau sasoiaren iraupenaren arabera aplikatuko da.

Sasoiko jardueratzat joko dira normalean urteko egun jakinetan besterik gauzatzen ez direnak, izan egun horiek jarraituak ala aldizkakoak, eta baldin eta ez badira urtean 180 baino gehiagotan gauzatzen.

Sasoiko jarduera guztietan, subjektu pasiboak autolikidazioa aurkeztu beharko du zergaren arautegian ezarritako modu eta epeetan, nahiz eta sartu beharreko kuota zero eurokoa izan.

7. Enpresa edo lanbide jarduera osagarriak egiten badira, hiruhilabeterik behin egin behar den sarrera zein den jakiteko honela jokatu da: "Komisioen edo kontraprestazioen zenbatekoa"ren modulurako esleituriko kopurua aplikatuko da jarduera erantsi horren hiruhileko sarrera guztien gainean.

URTEKO KUOTA

8. Urtea amaituta edo jarduera uztean edo sasoia amaituta, urtean zein kuota sortu den kalkulatu eta ekitaldiko azken autolikidazioan adierazteko, subjektu pasiboak zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa kalkulatu beharko du, urte naturalean zehar jarduera egin duen epealdi guztiari begira.

9. Zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa orduen arabera zehaztuko da, soldatapeko eta soldatarik gabeko langileei dagokienez; bestelako kasuetan, erabili, enplegatu edo ezartzeko benetan eman diren egunen arabera zehaztuko da; argindarraren kontsumoa edo ibilitako distantzia kalkulatzeko, ostera, gastatutako kilowatt-orduak eta ibilitako kilometroak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren. Zenbakia ez bada osoa, bi zenbaki dezimalekin adieraziko da.

Jardueran edo jarduera sektorean, modulua zati batez erabiltzen denean, kontuan hartu behar den balioa izango da erabileraren arabera hura hainbanatuz ateratzen dena. Ez bada posible hori zehaztea, neurri berean egotziko zaio moduluaren erabilera bakoitzari.

10. Ekitaldiko azken autolikidazioan, erregimen erraztuaren kuota kalkulatu da aurreko 2. zenbakian adierazitako prozeduraren arabera, hari ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan likidaturiko kopuruak kenduz.

Emaizta negatiboa bada, subjektu pasiboak eskatu ahal izango du zergari buruzko arauaren 115. artikuluko lehenengo apartatuan aurreikusita dagoen moduan egiteko itzulketa, edo eskatu ahal izango du bere aldeko saldoa aldizkako hurrengo autolikidazioetan konpentsatzeko.

11. Urte naturaleko azken hiruhilekoari dagokion autolikidazioa hurrengo urteko urtarilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

12. Zergari buruzko arauaren 123. artikuluko Bat.B idatz zatian adierazitako eragiketei dagozkien kuoten likidazioa eta aktibo finakoak eskuratu edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkaria, beraz, foru dekretu honen III. eranskineko 1. zenbakian adierazitako eran egin behar dira.

III. ERANSKINA

JARDUERA GUZTIETARAKO ARAU KOMUNAK

1. Erregimen erraztuaren kuota gehitu egingo da balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren 123. artikuluko Bat.B idatz zatiko eragiketengatik sortutako kuoten zenbatekoan; kuota hori, berriz, txikitu ahal izango da, jarduera egitean erabiltzeko aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuoten zenbatekoaren arabera. Horretarako, aktibo finkotzat joko dira ibilgetuaren osagaiak eta, batez ere, erosteko aukera duten finantza errentamenduko kontratuen bidez eskuratzen direnak, erosteko aukera loteslea izan zein ez.

Zergari buruzko arauaren 123. artikuluko Bat.B idatz zatiko eragiketen kuotak (ondasunak Europar Batasunaren barnean eskuratzeak; eskuraketak, subjektu pasiboan inbertsioekin; eta aktibo finkoen eskualdaketak) agertarazi beharko dira zerga sortu den hiruhileko autolikidazioan. Dena dela, ekitaldiko azken likidazio aldiko autolikidazioan likidatu ahal izango ditu kuota horiek subjektu pasiboak.

Aktibo finkoen erosketa edo inportazioarengatik jasandako edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira jasan edo ordaindu diren likidazioaldiari dagokion autolikidazioan edo hurrengoetan, zergari buruzko arauaren 99. artikuluan ezarritako arau orokorreari jarraituz, artikulua horretan ezarritako mugekin. Dena dela, baldin eta subjektu pasiboak erkidego barruan eskuratutako aktibo finkoei edo subjektu pasiboaren inbertsioa izan duten aktibo mota horien erosketei dagozkien kuotak ekitaldiko azken aldiko autolikidazioan likidatzen baditu, kuota horiek ezingo dira kendu kuota horiek likidatzen diren aitopren-likidazioaren aurreko autolikidazio batean.

Ekitaldiko azken hiruhilekoari dagokion autolikidazioan, orobat, 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen jasan edo ordaindutako kuotak erregularizatu ahal izango dira, horiek erregimen erraztuaren menpeko jarduerari loturiko inbertsio ondasunak eskuratu edo inportatzeari badagozkio, balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen horretan erregularizazioa egiteko adierazitako aldia igarotzen ez den bitartean. Ondorio horietarako, 1998ko urtarrilaren 1era arte araubide erraztuan egon diren jardueren kenkarien laintzat zero hartuko da; hortik kanpo geldituko dira higiezin, ontzi eta aktibo ez-materialak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak, baldin eta ondasun horiek guztiak 1998ko urtarrilaren 1era arte araubide horretatik baztertuta egon badira.

2. Araubide erraztua aplikatu behar den jardueretan sute, uholde, amiltze edo matxura handiak gertatzen badira industri ekipoen, eta horiek aldakuntza astunak ekartzen badizkioite jarduera egiteari, orduan, interesatuak eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari indize edo moduluak murrizteko; horretarako, hogeita hamar eguneko epealdia dago, inguruabar horiek jazotzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta egoki iruditzen zaizkien frogak aurkeztuko dituzte. Zerga Administrazioaren aurrean aldakuntza larri horiek frogatu ondoren, dagozkion indize edo moduluak murriztea erabakiko da.

Era berean, aurreko paragrafoan ezarritako prozedura beraren arabera, indize edo moduluen murrizketa eskatu ahal izango da jardueraren titularrak aldi baterako ezintasun-egoeran badago eta beste langilerik ez badu.